



EBAZPENA, Funtzio Publikoko sailburuordearena, kontsulta publikora daramana agindu-proiektu bat egitea derrigorrezkoa izan dadin harremanak baliabide elektronikoen bidez izatea EAEko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako hautaketa-prozesuetan.

Administrazio Elektronikoari buruzko Dekretuaren xedea da (21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa) herritarrek administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izateko duten eskubidea garatzea, zerbitzu publikoetara iritsi daitezten eta administrazio-prozedurak izapidetu ditzaten, eta, horretaz gain, administrazio-prozeduraren legeek aitortzen dituzten gainerako eskubideak zabaltzea.

Berriki, dekretu hori aldatu egin da, apirilaren 21eko 55/2020 Dekretuaren bidez. Moldaketa hori, izan ere, administrazio elektronikoen arloan legedi-aldaketa batzuk gertatu direlako egin da; hain zuzen ere, administrazio-zuzenbidean oinarritako bi arau berri hauek jarri direlako indarrean: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea.

21/2012 Dekretuan egindako aldaketan artean, 28.1 artikuluan egindakoa dago, beste era batera idatzi baita: «Administrazioak, erregelamenduz, behartu ahal izango du berarekiko komunikazioa bitarteko elektronikoen hutsez izatera zenbait prozeduratan, baldin eta egiaztaturik badago interesdunek (pertsona fisikoak) gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, ardura profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik badutela bitarteko elektronikoen bitarteko irispidea eta bitarteko horiek erabiltzeko modua.»

Begiratzen badugu zer jartzen duen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 133. artikuluan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa), ikusiko dugu kontsulta publiko bat bideratu behar dela, jakiteko ea dena delako arauak ukituko bide dituen pertsona eta antolakunde esanguratsuenek gai hauei buruz zer iritzia duten:

- Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- Hura onartzearen beharra eta egokitasuna.
- Arauen helburuak.
- Beste aukerarik ba ote dagoen araugintzan edo beste nonbait.

Gobernu Kontseiluak 2017ko abenduaren 12an hartu zuen akordioaren arabera, dena delako xedapen orokorra izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak, aurretiazko kontsultaren izapidea betetzeko, iragarkia EAEko administrazio publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarri ahal izango du, gune segurua baita izapideak egiteko eta informazioa lortzeko. Horrela, herritarrei gonbidapena egingo zaie, berariaz, iritzia eman dezaten gai hauei buruz azalduko den informazioaz: araua onartzea



beharrezkoa eta egokia ote den, arauaren helburuak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik. Era berean, informazio hori bera Legegunean ikusgai jarriko da, eta Gobernu Irekiaren plataformara ere eramango da, Irekia delakora.

Beraz, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 4 c) eta 17. artikuluetan xedatuarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Kontsulta publikora eramatea agindu-proiektu bat egitea derrigorrezkoa izan dadin harremanak baliabide elektronikoko bidez izatea EAEko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako hautaketa-prozesuetan.

Bigarrena.- Herritarrek eta arauak eragindako erakundeek, hala nahi badute, hamar egun balioduneko epean helarazi ahalko dituzte ebazpen honen eranskinean azaltzen diren alderdiei buruzko iritziak, kontsulta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz,

Jose María Armentia Macazaga
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILBURUORDEA
(Elektronikoki sinatua)

ERANSKINA

1.- Ekimen arauemaile honen bidez konpondu nahi diren arazoak.

Begira dezagun zer jartzen duen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan (apirilaren 21eko 55/2020 Dekretuaren bidez aldatua), eta ikusiko dugu administrazio elektronikoa bultzatzen dutela eta prozeduren izapidetze elektronikoa lortzeko aurreikuspen batzuk ezartzen dituztela, horixe izan dadin administrazio publikoen ohiko jardun-modua, eta, hartara, zerbitzu publikoetara elektronikoki sartzeko eskubidea benetan gauzatu dadin eta administrazio-kargak murrizteko.

Administrazio Elektronikoari buruzko Dekretuan arautu da (21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa) nola inskribatu erregistro elektronikoan eta nola aurkeztu dokumentazio gehigarria, baita egoitza elektronikoko ordainketa-pasabidea ere.

Hautaketa-prozesuek, ordea, administrazio-prozedura modura, badituzte berezitasun batzuk, eta, horregatik, beharrezkoa da prozedura horien alderdi jakin batzuetan bitarteko elektronikoak nola erabili arautzea, bai eta derrigortasuna ere; arautu behar da, alegia, parte hartzeko eskabidea, parte hartzeko baldintzak egiaztatzea, merezimenduak alegatzea eta egiaztatzea edo plazak hautatzea.

2. Beharrezkoa eta egokia ote den ekimena onartzea.

Aipatu ditugun arau horietan, administrazio elektronikoa bultzatzen da, eta aurreikuspen batzuk ezartzen dira prozeduren izapidetze elektronikoa lortzeko, administrazio publikoen ohiko jardun-modua izan dadin.

Eraldaketa digitala 2020ko Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoaren (GOBEPE 2020) 7. ardatza da eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen aldarrikapenak babesten du; haren bidez, jauzi kualitatibo bat egin nahi da administrazio elektronikoa ezartzearen eta zabaltzearen arloan, batetik, eta, bestetik, euskarri elektronikoak papera ordeztu administrazio-prozedura guztietan, barne-digitalizazio prozesua osatuz. Ardatz horrek lotura du 3. ardatzaren proiektuekin, herritarrentzako zerbitzuei dagokiena, zeinaren erronka baita herritarrekiko interakzioan jarduteko egungo eredia garatzea eta hobetzea, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu elektronikoaren eskaintza osatuz, herritarrekiko interakzioaren kalitatea hobetzeko, zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikorako eskubidea eraginkor egiteko eta zama administratiboak gutxitzeko, haren kudeaketa egokituz administrazio elektronikoa dela-eta 39/2015 Legeak ekarri dituen beharrian berriei.

Era berean, eta kolektibo jakin batzuei dagokienez, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuko 28.1 artikulua ezartzen duen bezala (betiere apirilaren 21eko 55/2020 Dekretuak emandako idazketan), "Administrazioak, erregelamenduz, behartu ahal izango du berarekiko komunikazioa bitarteko elektronikoa hutsez izatera zenbait prozeduratan, baldin eta egiaztaturik badago interesdunek (pertsone fisikoak) gaitasun ekonomikoagatik, gaitasun teknikoagatik, ardura profesionalagatik edo bestelako arrazoiengatik badutela bitarteko elektronikoa irispidea eta bitarteko horiek erabiltzeko modua". Hala dator ezarrita Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 28.1 artikuluan, apirilaren 21eko 55/2020 Dekretuak emandako idazkeran.

Alde horretatik, aipatutako derrigortasunetik kanpo egongo lirateke inolako titulaziorik eskatzen ez duten hautaketa-prozesuetan parte hartzen duten pertsonak, bai eta beste kolektibo batzuk ere, beren inguruabar espezifikoak direla eta.

2.2. Hautaketa-prozesuei dagokienez, izena emateko bideak sistema elektronikoa bakar batean soiltzen baditugu, izapideak arinago egin ahal izango ditugu eta hautagaiak errazago iritsi ahal izango dira, egin beharreko kudeaketak edonondik eta edonoiz egin ahal izango baitituzte, deialdian ezarritako epearen barruan betiere.

Enplegu publikoko eskaintzak direla-eta etorri badatozen deialdietan uste izatekoa da hautagai asko egongo dela; lanpostuak, gainera, sarri, berehala eta lehentasunez bete beharreko sektoreen artean esleituko bide dira, eta komeni da, hortaz, hautaketa-prozesua ahalik eta arinen egin ahal izateko neurriak hartzea, behar den objektibotasuna zainduz betiere.

3. Proiektu araugilearen helburuak.

Arau berriaren asmoa edo xedea da aurrerantzean derrigorra izan dadila bitarteko elektronikoa erabiltzea EAEko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako hautaketa-prozesuetan.

4. Etor al daiteke beste konponbiderik araugintzaren bidetik edo bestelako bideetatik?

Aurreko ataletan azaldutako inguruabarrak direla-eta, ezinbestekoa da berriazko arau berri bat egitea, ez baita bestelako irtenbiderik ikusten.